


Erroitegi - Arraia



KOKAPENA

Bere kokapena zela eta Erroitegi, herribildu garrantzitsua izan zen, izan ere, han elkartzen baitziren probintziaren aldameneko eremuetara Opakua eta Egileorreko portuetatik joaten ziren pertsonak maiz hartzen zituzten bideak. Gaona, Ayala, Salvatierra eta azkenik, Porcelesen, hau da, Villa Alegreko Markesen jaurerria izan zen.

Arraia-Maeztu udalerria Arabako mendialdeko koadrilarena da. Berron (Arraiako Harana) eta Musitu (Laminoriako Erret Harana) erreken inguruko haranek osatzen dute, udalerririk handi hau Iturrieta eta Gasteizko mendiez inguratuta dago.



DESKRIBAPENA

Ibilbideak bide atsegin eta erosoak hartuko ditu motorrak pixkanaka berotzeko. Bide hauek, harrien artean eta bide-zidorrez osatutak izango dira. Errepide zati batzuk ere zeharkatuko ditugu.

Guztira, bostehun metro desnibeleko eta hamabi kilometroko irteera izango dugu. Beraz, exigentzia maila ertaineko irteera izango da. Normalean egiten dena baino pixka bat luzeagoa.

Erroitegi lautadako herririk altuenetakoa da eta bertatik beheranzko joeran Arraia - Maezturaino hasiko gara ibiltzen, denbora guztian Igoroin ibaiaren sakonunearen parean. Muxitu herritik pasako gara ere, bertan, hamaiketako hartzeko aukera izango dugu. Bertatik aintzinako vasco-navarro trenaren bide berdea hartzeko aukera izango dugu.

IBILBIDEA

KM 0 Erroitegi herrian ibiltzen hasiko gara mendebalderantz. Aldi berean, Igoroineko arroilerantz abiatzen joango gara.

KM 2 Igoroinera helduko gara, bertan argazki batzuk egiteko aukera eta honen edertasunaz gozatzeko aukera izango dugu Muxitu herrirantz jarraitu aurretik.

KM 6 Muxitu herrira helduko gara, hamaiketakoa hartzeko aukera izango dugu. Puntu honetan ibilbidearen erdia eginda izango dugu. Atsedena eta gero Minoria aldera abiatuko gara eta handik gutxira errepide zati txiki bat hartu beherko dugu ere.

KM 9 Bide berdearekin lotuko dugu gure bidea. Pista eroso batetik jarraituko dugu arraia Maezturarte.

KM 12 Arraia Maeztura arropaz aldatzeko eta zeozer hartzeko denborarekin helduko gara. Bertan Gasteizera bueltan ekarriko gaituen autosa itxoiten izango dugu.

